

BALEIKE



IÑIGO LLAVORI, INGENIARIA

GAINAZALAK PASIO

Erosi Zumaiako dendetan

165.000 euro
deskontu bonoetan

500.000 euroko
inpaktu ekonomikoa

Itzuli bitzitza kaleari



#errotaherria gara



PUBLIZITATEA



Endañeta Zumaia

ENDAÑETAk ez du saldu bakarrik egiten, arreta ere ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



Galdona
burdindegia

Denda:
Mendaro marinela, 1
943-14 33 46

Biltegia:
Jose Mari Korta industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
943-86 11 17

Industriarako nahiz **etxerako era guztietako material, tresna, pieza, eta osagarriak**



BALEIKE 301

2020-IRAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 4 | Hitz tantak Izaro Altzibar
<i>Helena Merino, Laia Martorell Tello
eta Anna Salvador Gil</i> | 26 | Bazkide kluba |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Zelatan</i> | 28 | Plazan bazan |
| 8 | Hainbat aburu Mikel Lizaso
<i>Emaiguzue plan bat eta mundua
mugituko dugu</i> | 31 | Osasuna Rosa Azkue
<i>Larruzala zainduz</i> |
| 9 | Errematea Iosu Alberdi
<i>Elefantea</i> | 33 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Onuragarriak diren baina haurrei
debekatzeko dizkiegun jarduerak</i> |
| 11 | Elkarrizketa Oier Zeberio Maiztegi
<i>Iñigo Llavori: Garapen
teknologikoaren olatuaren gailurrean
gaude une honetan</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena
Asier Hilario
<i>Prehistoriaren bailara. Geoparkearen
altxor ezkutua</i> |
| 17 | Erreportajea Gorka Zabaleta
<i>Zuloaga eta Zumaia: bost ikuspegi</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Hau da edari zoragarria...</i> |
| 22 | Erretratua Juan Luis Romatet
<i>Mari Karmen Azpeitia, organo
jotzailea</i> | 44 | Nire txanda Marixi Sesma Aizpurua
<i>Bideobirusa</i> |
| | | 45 | Agenda |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Oroitzapenak</i> |

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus

Erredaktore taldea

Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue

Izaro Altzibar
Oier Zeberio Maiztegi

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus

Administrazio

arduraduna
Uxua Ostolaza

administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Helena Merino, Laia Martorell Tello eta Anna Salvador Gil

TESTUA: IZARRO ALTZIBAR

Ekainean etorri ziren Helena Merino (Badalona, 1997), Laia Martorell Tello (Badalona, 2000) eta Anna Salvador Gil (Badalona, 2000) Zumaiako *Telmo Deun* traineruan arraun egitera. Behin arraun denboraldia amaituta, Laiak eta Annak irailean beren jaioterrira itzultzeko asmoa dute, baina Helenak lana aurkitu du hemen, eta luze geratzeko asmoa du, hemen arrauna “askoz ere serioago” hartzen delako Katalunian baino.

Kataluniarrak zarete. Nolatan zaudete Zumaiako traineruan?

Helena: 2018an Hernaniko traineruan arraun egin nuen zenbait arraunlari zumaiarrekin, eta harreman handia egin genuen. Zumaiako entrenatzaileak bazekien interesa nuela beraiekin jokatzeko, eta neguan zehar zenbait asteburutan Badalonatik Zumaiara etortzen nintzen tarteka arraun egitera eta taldeko dinamika ikastera. Aurten, uda osoa hemen pasatzeko aukera eskaini zidaten, eta Badalonako arraun taldeko Laia eta Anna ere etorri ziren nirekin.

Noiz arte izango zarete hemen?

Laia: Irailean itzultzea aurreikusten dugu Annak eta biok, baina Kontxarako sailkatzen garen edo ez, egonaldia luzatu ala murriztuko dugu. Hala ere, ikasketak direla eta, ezin dugu luze gelditu hemen.

H: Hemen geratzeko asmoarekin etorri nintzen, oso gustura nagoelako. Lana aurkitu dut, eta ahal bezainbeste luzatuko dut egonaldia hemen. Pisua bilatzen ari naiz orain.

Zergatik nahi duzu geratu?

H: Hemen garrantzi handiagoa ematen zaio arraunari, eta hainbeste gustatzen zaidanez, etorkizun gehiago ikusten dut hemen. Egunen batean Liga edo Kontxa irabaztea gustatuko litzaidake, eta Kataluniatik asteburuetan edo udaran bakarrik etorriko banintz, zailagoa litzateke taldearen teknika barneratzea. Aldi

berean, Badalonan aurkituko banu lana, oso zaila litzateke hiru hilabeterako etorri ahal izatea.

Desberdina da hango eta hemengo arrauna?

Hemen arrauna askoz ere serioago hartzen da, eta jende gehiagok egiten du. Estropadak hobeto antolatuta daude, eta desberdin jokatzeko dira.

Taldean gustura zaudete?

Bai, oso. Egia esan, harrera ona egin ziguten. Asteazken egunetan entrenatzen gara, eta asteburuetan estropadak jokatzeko ditugu. ETE ligan ari gara lehiatzen orain, eta hirugarren postuan gaude momentuz, baina lehen edo bigarren postuetan amaitzea espero dugu, ondoren ACT ligan sartzeko playoffak jokatu ahal izateko. Liga abuztuaren 30ean bukatuko da, eta Kontxako sailkapena jokatu da orduan.

Non bizi zarete?

Klubak jarritako pisu batean, Itsas kiroldegitik bi minutura. Hirurok eta Plentziako taldekide bat bizi gara elkarrekin.

Klubetik aparteko lagunak egin duzue?

Anna: Laiak eta biok ez dugu inor ezagutzen arraun elkartekoez gain.

H: Nik Itziarko bikotea dut, eta horregatik ezagutzen dut jende gehiago.

Zer moduz hizkuntzaren aldetik?

Taldekideek euskaraz hitz egiten dute beraien artean, baina hizketan ari garenean edo zerbait garrantzitsuaz ari direnean, beti saiatzen dira gaztelaniaz hitz egiten, nekeza egiten zaien arren.

Zein dira zuen aurrera begirako asmoak?

A: Neguan zehar Badalonan entrenatzen jarraituko dut, eta egoeraren arabera, eta aukera suertatuz gero, Zumaiara itzuliko naiz datorren udaran.

L: Aurten ikasketak online bukatzeak aukera eman dit ekainetik hemen egotea, azterketak oso berandu bukatuko nituzkeelako bestela; beraz, ez dakit itzultzeko aukera izango dudan datorren urtean. ■■■





Zelatan

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Abuztuaren 2a, Aiako probalekuan. Urrezko Aizkolarien Txapelketako finala. *Julen Alberdi Txikia IV.a* aurkarien lana jarraitzen ari da ezkutalekutik, artean txapela berak jantziko zuela jakin gabe. ■■■

DATUAK:

Kamera: Nikon D750

Objektiboa: Sigma 24-35mm f2 ART

Foku distantzia: 35mm

Diafragma: f2

Obturazio abiadura: 1/250 seg.

ISO: 2500

@arnaitzrubiophoto





Emaiguzue plan bat eta mundua m

Bost hilabete pasa dira Koronabirusaren auziaren ondorioz etxean itxita gelditu ginenetik. Egoera hark ipurdi bistan utzi zituen, domino efektu perbertsoa eraginez, horren sendotzat genuen sistema oso baten gabezia nagusiak. Hezkuntza, hurbileneen bizi dudan esparrua, ez da salbuespena izan. Haurrak etxean geratu beharrak agerian utzi ditu ordurako askori nabarmen zitzaizkigun hobetu beharrekoak: arrakala digitala; etxe askotan ikasketa prozesuan babesa emateko zailtasunak; konpetentziak denon ahotan egon arren edukietan oinarritzen den sistemaren konstatazioa; presentzialaren garrantzia, batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzan; gelako testuinguruaz aparte hezkuntza


lantzeko baliabide gabezia; egoerara egokitzeko irakasleak bakarkako lan isolatuan jardutearen zentzugabekeria; testuinguru berrian ikasleen jarduna ebaluatzeko zailtasunak; azterketa konbentzionalen gehiegizko dependentzia; prozesuan hainbat eta hainbat ikasle atzean geratzeko arriskua, batez ere zailtasun gehien eta motibazio eta babes gutxien dutenen artean...

Bost hilabete pasa dira Koronabirusaren ondorioz etxean itxita gelditu ginenetik eta jadanik ikasurte berriari hasiera eman diogu. Hego Euskal Herriko hezkuntza komunitatean hausnarketak, bilerak, aldarrikapenak, protestak, inbertsioen iragarpena etab. etengabeak izan dira. Izugarritzko energia

eta dirutza gastatuko ditugu ikasurte hasiera hau prestatzen eta esango nuke goian aipatu ditudan puntu horietatik bat ere ez dugula konpondu. Are gehiago, segurtasunaren izenean eskolara bueltan ikasketa prozesu sano eta eraginkorrak lantzeko askoz ere baldintza okerragoetan izango gara esatea ez dirudi esajerazioa. Azken finean hori egin baita, une honetan osasungintzatik datozen gomendioak (aldakorrak beti eta tarteka kontraesankorrak) bete, haratago joan gabe, gero anabasa etorri gero ez diezagutela esan ez ditugula neurri profilaktiko guztiak hartu. Horrekin pozik.

Bost hilabete pasa dira Koronabirusaren ondorioz etxean gelditu ginenetik eta osasun neurriez haratago

HAUXE BAI JENEROA!



mugituko dugu

geletan eta etxeetan sortuko diren gabezi pedagogiko eta emozionalei erantzun gabe gaude. Errazena kritikatzeari denez, tarte hau esparru pedagogiko-emozionalean estrategia integrala marrazten lagunduko ligukeen abiapuntu bat plazaratzeko aprobetxatu nahi dut: Ikasketa zerbitzua. Ez da bakarria, asko daude, ez gara ezer berririk asmatzen ari, baina zerbaitetik abiatu behar baldin badugu, hau da nire proposamena. Eskolak bere inguruko komunitateari zerbitzu emanaz haur eta gazteak inplikatzeko dira, ikasketa zerbitzuari esker, eta helburu nagusietakoa du horren bidez ikasketa eredu eraginkorragoak abian jarri. Win-win. Prozesu horretan gizartean behar gehien dutenek, eskolak eta ikasleek

irabazten dute ahalegin soil baten inguruan. Tankera honetako filosofia pedagogikoaren aldeko apustua argi izango bagenu osasungintzatik planteatutako edozein eszenatokira koherentzia eta eraginkortasun handiagoz egokitzeko aukera gehiago izango genituzke. Esate baterako, presentzial zein online, gela barruan edo kanpoan, bakarka zein taldean eta abar funtzionatzeko eskuak askeago izango genituzke, egoera desberdinetan ipar metodologiko bera izango genukeelako, egoeraren arabera lema alde batera eta bestera astintzen ibili beharrean.

Garaiko pentsamoldea hankaz gora jarri zuen Arkimedesen hitzak egokituz: emaguzue plan bat eta mundua mugituko dugu. ■■■

ERREMATEA



IOSU ALBERDI


Elefantea

Ez pentsatu elefante batean! Egiten duzuen egiten duzuela, ez pentsatu elefante batean". Eta zer etorriko denei burura: tronpa luzea eta belarri zabalak dituen animalia handia.

Hitzen garrantzia azpimarratzeko, George Lakoff linguistak jarritako adibidea da aurrekoa. Haren arabera, hitz bat aipatze hutsak, aurka egiteko bada ere, errealitatea ulertzeko modu bat ekartzen digu gogora. Esaterako, burura etortzen zaizkigun irudiak oso ezberdinak dira *hondakinak kudeatzeko zentroa edo erraustegia* hitzak entzutean Biek eraikin berdinari egiten diote erreferentzia, baina definizio bakoitzak transmititzen duenak zerikusi gutxi du bestearekin: lehenak, birziklapena eta naturarekiko errespetua; bigarrenak, berriz, kutsadura eta kea.

Aurreko definizioek bi marko ezberdini egiten diete erreferentzia, baina beti ez da hala gertatzen. Horregatik, esan ohi da bere markoa gizarteratzea lortzen duenak lanaren zati handi bat egina duela, gizarteak ideia horiek hartuko baititu oinarritzat. Batez ere, gainontzekoak hura gezurtatzera mugatzen badira; hau da, elefantean ez pentsatzeko esatera.

Nola egin aurre? Lakoffen proposamena: "Zure mundu ikuskerarekin bat egiten duen lengoia sortuta". ■■■



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



AITA MARI
Jatetxea

☎ 679 10 31 67
aitamarijatetxea@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



AIZPURUA
L I B R U R U
D E N D A

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen seride eta lagunen elkartera
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama
tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe - Hariz Klinika


Árdantzabide, 3 behea • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☐ 688 73 38 56



Ardantzabide
ALTZARIAK-ARROZTEGIA

www.ardantzabide.com f

Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 25 32 Tel.: 943-86 16 31



OGINDEGI
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa
Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

bai bidea

Taberna · Jatetxea
Bar · Restaurante

f t i



finés
francés
español
inglés
español
español
suomi
bask
katalán
francés
inglés
castellano
finlandés
inglés
suomi
katalán

BAKUN
ITZULPEN ETA ARGALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06
20749 Arroa bakun@euskabnet.net



Basodi
albaitaritzza

Albaitaria
Maki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basodivivet.com
www.basodivivet.com

Goltez: 11-13 / Arratsaldez: 16-18:30 / Astelehen gozian eta larunbatuan itxia
Larriak: 605 72 87 07 Etkez ebeko zerbitzua



BASUSTA
erretoria · asador

José Blázquez

Palxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

"Garapen teknologikoaren olatuaren gailurrean gaude une honetan"

IÑIGO LLAVORI INGENIARIA

Gaztetatik gai zientifikoen zalea, Iñigo Llavori (Zumaia, 1983) ingeniaria eta doktorea Mondragon Unibertsitateko ikertzailea eta irakaslea da. Gainazalen ingeniartzan aditua, mundu mailako argitalpen zientifiko garrantzitsuetan argitaratu diren zazpi ikerketa lanen autore nagusia da.

Testua eta argazkiak: **Oier Zeberio Maiztegi.**

Abuztuaren erdi aldera elkartu gara Mondragon Unibertsitatean, Garaia eraikinean. Gainazalen laborategian aritzen da Llavori, eta bertan aritu da espezialitate honen inguruan hizketan.

Zergatik ikasi zenuen Ingeniaritza?

Nire aitak Guascor enpresan egiten zuen lan eta esparru horrek betidanik eman zidan atentzioa. Eboluzio logikoa izan da. Eskolan ondo moldatzen nintzen zenbakiekin, eta eremu hau asko gustatzen zitzaidan. Unibertsitatean sartu baino lehen Matematika eta Fisika karreraren artean erabaki ezinda nengibilen. Une hartan, nire inguruko pertsona batek hau esan zidan: «Gauza bat da fisika edo matematikak gustatzea da, eta beste bat diziplina horiek mundu errealean nola aplikatzen diren gustatzea». Fisikaren eta matematikaren esparruan lan irteera nagusia irakaskuntza da. Hemen ez dago NASA bat edo

CERN bat. Une hartan irakaskuntza ez zitzaidan gehiegi gustatzen, ordea. Horregatik erabaki nuen ingeniaritza bat ikastea, "katxarreoa" gustatzen zaidalako. Kuriosoa zera da, azkenean unibertsitateko irakasle izaten amaitu dudala.

Ingeniaritzaren mundua oso zabala da. Zer adar aukeratu zenuen?

Ingeniaritza Mekanikoa aukeratu nuen, hainbat esparrutan lan egiteko aukera ematen dizulako arlo horrek. 2001-2002. kurtsuan sartu nintzen Mondragon Unibertsitatean. Gehien konbentzitu ninduen unibertsitatea izan zen, karreraren diseinuari eta lan irteerei dagokienez. Hiru urtetan zehar ingeniaritza mekaniko teknikoa ikasi nuen eta hurrengo bi urteetan ingeniaritza industrialeko goi ikasketak egin nituen. Lehen hiru urteetan asko disfrutatu nuen, oso gustura egon nintzen; azken bi urteak gogorragoak egin zitzaizkidan, ordea. Hala ere, arazo handirik gabe amaitu nuen karrera.



Gaur egun doktorea zara. Zerk bultzatu zintuen tesia egitera?

Karrera 2007. urtean amaitu nuen, baina urtebete geroago krisi ekonomikoa hasi zen eta lan merkatuak kolpe izugarria jaso zuen. Lehenik eta behin, atzerrira ingelesa ikastera joan nintzen, Irlandara. Bertan, Carloweko turismo bulego batean aritu nintzen lanean urte erdi.

Ingelesarekin itzuli nintzen. Baina krisiaren ondorioz, esan bezala, lan merkatua asko mugatu zen. Nuere burua birziklatzeko beharra ikusi nuen eta aukera ezberdinak jorratu nituen. Ikerkuntzak, adibidez, betidanik sortu zidan interesa eta ikasten jarraitzea erabaki nuen. Karrera berri bat edo doktoretza? Galdera hori izan zen neure buruari egin nion hurrengoa. Azkenean doktoretza tesia egitea erabaki nuen.

Zer eremutan espezializatu zinen?

Euskal Herrian manufaktura industriak garrantzi handia dauka eta hainbat lan esparru daude. Hori dela eta, elkarriketa asko egin nituen zenbait tesi zuzendarirekin, gaien inguruko informazioa lortzeko asmoarekin. Mekanika eta materialean arloan espezializatzea erabaki nuen azkenean. Horri loturik, tesia materialen gainazalei buruz

egitea okurritu zitzaidan. Zortea eduki nuen, zuzendari ona bilatu nuen eta horrek ate asko ireki zizkidan.

Doktoretza tesia egitea prozesu gogorra da. Nola bizi izan zenuen?

Tesia egiteko prozesuaren hasiera shock bat izan zen. Karrera ariketa guztiek prozesu honi jarraitzen zioten: hasi egiten ziren, garapen bat zuten eta emaitza bat lortzen zen amaieran. Errealitateak ez du horrela funtzionatzen, ordea. Askotan ez dago erantzun bakarra, milaka daude edo zenbait kasutan oraindik ez daude. Pila bat irakurtzen hasi nintzen materialen gainazalen inguruan. Izugarria da urte batean zenbat irakur daitekeen. Irakurri, laburtu, gai ezberdinak jorratu..., horrela definituko nuke hasierako fase hori. Ondoren, poliki-poliki, planteatutako helburuak betetzen joan nintzen. Prozesu gogorra izan zen, baina oso eraikitzailea. Pertsona gisa aldatu egin nintzela esan dezaket.

Tesiari erreferentzia eginaz, zer helburu zenituen?

Neure helburua gainazalean eragiten duen nekea eta higaduraren arteko konbinaketa aztertzea zen, *fretting* deiturikoa. Prozesu hori nahiko berezia da, tribologia (gorputz solidoen arteko marruskadura aztertzen duen Fisikaren atala) eta nekea konbinatzen dituelako, eta hori nahiko problematikoa da zenbait industrian: aerogenerazioan, nuklearrean, igogailuenean...


Tresna numeriko bat garatu nahi nuen bi fenomeno horiek aztertzeko. Esan bezala, irakurtzen hasi nintzen, ikerketa lerroak aztertzen, probak egiten, etab. Iritsi zen une bat non *nekea* eta *higadura* aztertzeko metodologia numeriko bat garatu nuen.

Guztia ordenagailuaren barnean gertatzen zenez, ez nekien, ordea, errealitatean zer gertatuko zen. Esperimentuak egiteko unea iritsi zitzaidan eta laborategian sartu nintzen. Zehazki, tesiari erreferentzia eginaz, hari metaliko finenetan zentratu nintzen. Une horretan ez zegoen frogatu nahi nuen hori ikertzeko balio zuen makinarik, eta zerotik hasita bat diseinatzea eta eraikitzea erabaki nuen. Nire bizitzako urte eta erdi pasa nituen makina hori garatzen. Makina martxan jarri eta emaitzak balioztatzea lortu nuen. Arrakastatsua izan zen.

Tesia amaitzean unibertsitatean hasi zinen lanean. Ikaslea irakasle bilakatu zen eta ikerkuntzan murgildu zinen. Zer egiten duzu, gaur egun, unibertsitatean?

Tesia amaitu ostean, batetik, ikerketa esparrua zabaltzeko zitzaidan, eta, bestetik, irakasle lanetan





**"NEKEA ETA HIGADURA AZTERTZEKO
METODOLOGIA NUMERIKO
BAT GARATU NUEN"**

**"FROGATU NAHI NUENA IKERTZEKO
MAKINARIK EZ ZEGOEN, ETA BAT
DISEINATU ETA ERAIKI NUEN"**

**"HEMERETZI ARTIKULU
ZIENTIFIKOREN IDAZKETAN PARTE
HARTZEKO AUKERA IZAN DUT"**

hasi nintzen. Lehenago klase batzuk eman nituen, baina beste *shock* bat izan zen hau. Oraindik ere gogoratzen naiz eman nuen lehen klaseaz. Mundua oso ezberdin ikusten da irakasle bihurtzen zarenean. Ikasleen garapena jarraitzeko aukera duzu, bertan zaude, beraiei ikasketa prozesuan laguntzeko, urte batzuk lehenago beraien posizio berdinean nengoela jakitun izanik... Bestetik, oso pozgarria da, baita ere, gaian interesatuta dauden ikasleen lana ikustea. Irakaslea izateaz gain, ikerkuntzaren arloan murgildu nahiz, bereziki. Esan bezala, gainazalen inguruan egin nuen tesia eta arlo horretan espezializatu naiz, garrantzitsua iruditzen zait eta. **Eta zergatik iruditzen zaizu garrantzitsua?** Arazo guztiak gainazaletan hasten direlako. Higadura, korrosioa, pitzadurak... beti gainazaletan agertzen dira. Adibidez, zubi batean ager daitezkeen pitzaduretatik hasita zubi osoa erori daiteke.

Lan egiten dudan laborategian era guztietako gainazalak aztertzen ditugu. Frikzioaren, higaduraren, lubrikazioaren... gaineko ikerketak egiten ditugu, izugarriko inpaktua dute-eta

industria sektorean. Adibide gisa, zenbakitan jarriaz, zenbait elementutan frikzioa % 10 jaitea lortuko balitz, milioika euro aurreztuko genituzke. Gainazal edo lubrikatzaile egoki bat sortzen bada, frikzioa jaitsi dezake, adibidez. Kotxe baten motorretako pistoietan frikzioa jaisten bada, efizientzia hobetzen da, kontsumoa jaisten da eta CO2 isurpenak txikitzen dira. Higaduraren kasuan, pneumatikoen higadura jaitea lortzen bada, pneumatiko gutxiago erabiliko ditugu. Korrosioaren kasuan, estaldura egokia garatzen bada, herdoil gutxiago agertzen da eta material horren bizi esperantza igoko da.

Zenbakitan jarrita, korrosioa eta higadura daude, adibidez, materialen hutsegiteen % 70en atzean. Arazoak, esan bezala, gainazalaz hasten dira, eta alde horretatik, zerbait hobetu badezakegu, inpaktu garrantzitsua edukiko luke industrian. Gure laborategian hortz eta aldaka inplanteak, estampa osagaiak, igogailuak, pieza aeronautikoak, etab. aztertu ditugu. Gaur egun garatzen ditugun ikerketak ez dira produktuetera joaten, hemendik hamar edo hogeitara eragingo diren produktuetera baizik. Garapen

teknologikoaren olatuaren gailurrean gaude une honetan.

Ikerketa jarduerari dagokionez, nola baloratuko zenuke orain arte eginiko lana?

Ikerkuntza talde lana da. Bakarrik ez zoaz inora. Azken batean, zure jarduera zientifikoa argitaratzen dituzun dokumentu zientifikoaren kalitatearen arabera neurtzen da. Hemeretzi artikuluko zientifikoren idazketan parte hartzeko aukera izan dut eta horietatik hamaika mundu mailako publikazio garrantzitsuenetan argitaratu dira. Eginiko lanari esker, zazpi artikuluren autore nagusia izan naiz. Ekarpenean egitea lortu dugu, eta hori, azkenean, ohore bat da, egindako lanaren errekonozimendua.

Gainazalen lerroak, momentuz, behintzat, etorkizun oso interesgarria du. Arrasaten, une honetan, gure taldea nahiko txikia da, baina poliki-poliki aurrera goaz. Hamaika artikuluko zientifiko garrantzitsu argitaratzeak maila altua dugula erakusten du, ordea. Hori da frogia nagusia. Pixkanaka goaz, maratoni bat da hau. Txikiak gara, baina egiten dugun lana kalitatezkoa da. ■■■

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!

Webgunea: talasoterapiazelai.com
 Tel. 943 865 100
 Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era
 Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia
Zelai
 ZUMAIÀ

PUBLIZITATEA

EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaiakoa, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
ERREBERA, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiakoa tel. 943-14 30 97
ekin@ekin.com www.eकिन.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**

ERNIÑO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA

Portatilen, mugikorren
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garaa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIKOA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntza eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaiakoa
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriando optika

Kantauri plaza, 8. Zumaiakoa. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinua
eta argiztapen alokairua
Hotz eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo 12 943-86 07 60

ORRAZTEGI
ZUMAIKOA

943-86 20 83



Zuloaga eta Zumaia: bost ikuspegi

Ignacio Zuloaga margolariak Zumaian izan zuen eragina aztertzen du urriaren 4ra arte Alondegiko Oxford aretoan ikus daitekeen erakusketak.

Testua: **Gorka Zabaleta.**
Argazkiak: **Zumaiaiko
Fototeka.**

Ignacio Zuloaga artista eibartarrari buruzko hainbat ekimen ari dira egiten aurten Euskal Herrian, haren jaiotzaren 150. urteurrenaren harira. Zumaiaiko Udalak ere aukera aprobetxatu nahi izan du, margolariak harreman estua izan baitzuen gure herriarekin. Zuloaga Fundazioaren laguntzarekin, eragin horren berri ematen du Ismael Manterolaren zuzendaritzapean jadanik Oxford aretoan ikusgai dagoen erakusketak. “Zuloagaren artelan bat edo beste ikus daiteke erakusketan, baina batik bat agiriak, gutunak eta orain arte inon ikusi gabeko argazki zaharretan oinarritu gara Zuloagaren eta Zumaiairen arteko harremana



kontatzeko”, azaldu digu EHUko Artearen Historiako irakasle Ismael Manterolak.

Santiagootxea

Zuloagak Zumaiarekin izan zuen harremana bost ataletan banatu du Manterolak. Horietako lehena eta garrantzitsuenari Santiagootxea da. “Zumaian utzi duen arrastorik handiena da, dudarik gabe. Dokumentazio asko dago gaiaren inguruan, eta oso ondo ikusten da erakusketan nolakoa zen Santiagoko hondartza Zuloagak erosi baino lehen, eta nola joan zen ingurua eraldatzen”.

Ez dago erabat garbi zergatik aukeratu zuen Zuloagak Santiagoko hondartza bere etxea eraikitzeko. “Familian diote Paristik Eibarrera bueltatzen zen bakoitzean pasatzen zela Santiagoko hondartzaren ondotik eta begiz jota izango zuela. Nik uste dut beste bide batzuetatik ere izan zuela leku honen berri. Adibidez, Ignaciok harreman estua zuen Daniel osabarekin. Danielek zeramika lantzen zuen eta askotan etortzen zen Zumaia, Aladren margolariaren etxera. Danielek behin baino gehiagotan margotu zuen Zumaia paisaia Arritokietako bistatik, eta handik Santiagoko hondartza ikusten da atzean”.

Agirietan baieztatu dute, hori bai, 1907rako hondartza erosteko interesa zuela, Udalari bidalitako gutun batean irakur daitekeenez. Eta badago, baita ere, 1908ko argazki bat, non Zuloaga ageri den Santiagon zegoen baserria seinatzen. “Garbi dagoena da Zuloagak etxe bat behar zuela Euskal Herrian. Aita hil zenean Eibarko etxea saldu egin zuten eta leku bat behar zuten Paristik bueltatzen zenerako. Eta Zumaia aukeratu zuten”.

Santiagoko hondartza eta bertan zegoen baserria –aurrez baseliza izandakoa– 1910ean erosi zituen, enkantean. “Zumaian beti esan izan da oso merke, ia debalde, lortu zituela, baina agirietan ikusi dugu ez zela hala izan. Enkantera beste interesatu bat azaldu zen eta azkenerako asko garestitu zen salmenta”, argitu du Manterolak.

Erakusketan oso ondo ikus daiteke nola joan zen ingurua moldatzen. “1912an hasi zen bere etxea eraikitzen eta 1914an inauguratu zuen. 1920an, errepidearen bestaldean dagoen Santa Luzia etxea eraiki zuen; 1921ean zabaldu zituen baseliza, museoa eta tailerra; 1922an errepidearen bestaldeko San Antonio etxea; 1930an inauguratu zuen pintura fabrika –gaur egun Laia etxea den eraikina–; eta garai bertsuan erosi zituen Larramendi baserria eta beste lur batzuk.

Santiagootxean egin zuen bizitzaz eta han bere lagun intelektualekin (Ortega y Gasset, Ayala, Marañon...) antolatzen zituen egonaldiak eta tertuliak ere aztertu dituzte erakusketan.

Zuloaga eta herriko bizitza

“Zumaian zuloagatarrak beti ikusi ditugu herritik oso urrun, baina Ignacio Zuloagaren kasuan ez zen horrela izan. Argazki batean, adibidez, Casino Liberalean [gaur egun Pulpo elkarte] ageri da, jendez inguratuta. Harreman hori bazegoen”. Atal honen barruan landu ditu, baita ere, Beobiderekín eta Balentziagarekin izandako harremana; edota nola Udalarentzat arte eta ondare aholkulari aritu zen. “Adibidez, Ubillos jauregiaren berrikuntzan eragin handia izan zuen. Ubillos baserri zahar bat zen eta berreskuratu egin zuten”.

Zuloagako festek leku berezia dute erakusketan. Baseliza berreskuratu zuenean, Santiagoko festak ere berreskuratu ziren. Baina, hasieran, ez zen Zuloagaaren ekimenez izan. “Jakín dugunez, Etxezarreta kaleko bizilagun batzuek eskatu zioten Zuloagari jaiak berreskuratzeko. Bera ados agertu zen eta proposamena Udalari helarazi zioten. Zehazki, txistulari banda eta musika banda bidaltzeko eskatu zuten, Santiagon erromeria bat antolatzeko. Erromeria haietako argazki zoragarriak daude, jendea dantzán errepidean...”. 1921etik aurrera hasi ziren ospatzen, urtero, baina 1930eko hamarkadan Zuloagak erabaki zuen gehiago ez egitea. “Elizak kanpaina hasi zuen elkar helduta dantza egitearen kontra, gauzak nahasi egin ziren, eta Zuloagak erabaki zuen ez jarraitzea. Gainera, hamarkada zaila izan zen politikoki. Udalak urtero eskatzen zion ospatzeko, baina Zuloagak ez zela momentua arrazoitzen zuen”.

Zuloaga eta ongintza

Zuloagak dirua ematen zuen tarteka beharra zeukatenentzat, baina bere proiekturik garrantzitsuena ospitalea izan zen, eta hura eraikitzeko antolatu ziren jaialdiak. Zumaian ez zegoen zaharrentzat edota ezinduentzat prestatutako ospitalerik edo egoitzarik. “Bere ideia zen erietxe-egoitza funtzioa beteko zuen leku bat eraikitzea”.

Dirua biltzeko, hiru jaialdi handi antolatu zituen, lehena 1919an. “Kantaldi bat izan zen, musika jaialdi bat. Bere lagunak ekarri zituen, debalde. Haietako bat zen Enrique Fernandez Arbos musikaria, garaiko ospetsuenetako bat





"ZULOAGATARRAK BETI IKUSI DITUGU HERRITIK URRUN, BAINA IGNACIO ZULOAGAREN KASUAN EZ ZEN HORRELA IZAN"

European. Hark zuzendu zuen jaialdia, eta nazioarteko bi emakume abeslari etorri ziren”.

1924an antolatu zuten bigarren jaialdia, zezenketa bat. Oihartzun handia izan zuen, besteak beste, zezenak Belmonte harrapatu zuelako. Juan Belmonte torero ezaguna zen orduan Espainian. “Sanchez Mejías ere etorri zen, gero Lorcak poema eskaini zion toreroa”. Jaialdi hartan ere diru asko jaso zen.

1925ean egin zen azken jaialdia, zezenketa berriro... Eta zezenak berriro harrapatu zuen Belmonte. Hirugarren jaialdi hartan egin zen lehen gala berbena, hura ere ospitalerako dirua biltzeko. “Badago deskripzio bat lehen berbena harena. Gala berbena hark gero utzi zuen bere arrastoa herrian”.

Hirugarren jaialdi hartan jasotako diruarekin ospitalea eraiki ahal izan zen, 1928an. San Juan izena jarri zitzaion Juan Belmonteren omenez. “Kontuan izan behar da orduan ez zegoela gizarte segurantzarik eta ongintzaren gaia udalen esku egoten zen, baina udalek ez zeukaten dirurik horrelako azpiegiturak eraikitzeko”.

Omenaldiak

Zumaiak Zuloagari egindako omenaldien berri ere jaso da erakusketan. Haietako batean, esate baterako, bere izena jarri zioten Kale Nagusiari. 1926tik Francoren diktadura pasa arte eraman zuen bere izena. 1948an egin zitzaion beste omenaldi bat, eta ordukoak dira Beheko plazako lorategia eta monumentua.

Zuloaga arazoa

Gerra Zibilean Zuloaga arazo bat izan zen Zumaiako botere egiturentzat. Horrela azaldu du Manterolak: “Frankistak herrian sartu zirenean Zuloaga Zumaiari zegoen. Frankistek agintari berriak jarri zituzten eta informazioa eskatzen hasi ziren. *Informe sobre separatistas y marxistas* izena zuen txostenak. Zerrenda beltz hartan Zuloaga eta bere suhia azaldu ziren. II. Errepublikaren garaian Espainiako Estatuan Zuloagak errekonozimendu handia izan zuen, ordura arte izan ez zuena. 1931n izendatu zuten Arte Modernoko museoko batzordeburu. Bera eta bere lagun intelektualak errepublikazaleak ziren. Zuloaga ez zen militantea, ez zuen konpromiso politiko handirik, baina, dudarik gabe, errepublikazalea zen”.

Hemengo alkateak txostenak bidali zizkionean Zarautzen agintean zegoen militarri, arazo bat sortu zen, militar hura oso zuloagazalea zelako. “Jose María Huarte komandantearen nahietako bat zen Zuloagak erretratu bat egitea. Gainera, intelektualak eurenaganatzeko premia zuten frankistek, gehienak Errepublikaren alde agertu baitziren. Uhartek babestu egin zuen Zuloaga. Baina herriko aginte zibila hartu zuen botere ekonomiko frankistak segitzen zuen Zuloaga *gorri* kontsideratzen, eta batez ere bere suhia, Suarez Rezola. Orduan, Uhartek erabaki zuen Cosme Iraundegi alkatetzatik kentzea, bera ari zelako Zuloagaren kontra. Eta hor hasten da arazo handi bat botere zibila eta militarren artean. Eliteen borroka bat hasi zen, Zuloagaren kontura”. Bere bizitzako azken urte haietan, errepublikazale izatetik Francoren diktadura babestera pasa zen Zuloaga. ■■■■

Gertu erosi, zaindu zure herria.

ZAINDU ZURE HERRIA

GERTU EROSI

ZUMAIA BIZITZEKO DA

GERTU

Zaindu, zaindu, eta zaindu

Zumaia Udala

Zumaia bizitzeko moduko herria izateko helburua duten 98 proiektu eta ekimenek osatzen dute 2019-2023 Gobernu Plana.

Gobernu Planaren jarraipenerako prestatutako webgunean kontsultatu dezakezu ekimen bakoitza zertan den:

bizitzekoda.zumaia.eus

Tokiko Garapena

- 25. Coworking edo elkarten zerbitzu martxoan jarriko, ereduaren murrizketarekin ados. Auzo erregulazioa eta ekonomia sozial eraldatzaileko formazioa eta sinbortuak martxoan jarri. **0%**
- 26. Merkataritza teknikoak laguntza zuten merkatu eraldatzeekin batera. **50%**
- 27. Ostalaritza tena eta komertzioak eraldatzearen ondorioz eguneratzea. **100%**
- 28. Lehen sektoreari bultzada emateko, azoka biziberritzaile oinarri zuten ereduak jarri. **10%**

Zumaia Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA

Orkestra bat behatz puntetan

Mari Karmen Azpeitia, organo jotzailea

Zuri eta beltz koloreko teklei lotutako bizitza da berea. Piano eta organo karrerak egindako emakumea, 17 urterekin hasi zen Parrokian organoa jotzen, eta bere musikarekin Zumaiako bi abesbatzaren ahotsak ere jantzi ditu urte hauetan guztietan. Musika hobby bat bezala ikusten du, ez da inoiz izan bere ogibidea. Mari Karmen Azpeitia da, musikaria.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Kafe baten bueltan elkartu gara. Asteazkena da, eta lasaiago dago, Zumaiako 36. Musika Jaialdian egin behar zuen lana amaituta. Ostiralean, uztailaren 31n, San Pedro Abesbatzaren kontzertuan jo zuen; lau egun geroago, abuztuaren 3an, Garikoitz

Mendizabalekin batera, organo eta txistu kontzertua eman zuen Parrokian, Donostiako Musika Hamabostaldiko organo zikloaren barruan. “Abesbatzak urtero ematen du kontzertua Zumaiako jaialdian; emanaldi finkoetako bat da. Bestea, ordea, ez zegoen programatuta”, dio Azpeitiak.

Donostiako Musika Hamabostaldiko egitaraua hankaz gora geratu zen COVID-19 gaitzak sortutako pandemiagatik. Kanpotik etorri behar zuten musikarien kontzertuak bertan behera utzi zituzten, eta bertako musikarien aldeko apustua egin zuen Donostiako musika jaialdiak. “Hasieran, Alcalá de Henaresen (Madril, Espainia) bizi den errusiar baten kontzertua zegoen programatuta, baina covidagatik ezin izan zen egin. Irakasle izan dudana Esteban Elizondok kontzertua ematea planteatu zidan, eta nik Garikoitz Mendizabali emanaldi bat prestatzea proposatu nion. Orain urte batzuk elkarrekin jo genuen, eta gustatu egin zen. Berehala jaso nuen baiezkoa”.

Aspalditik ezagutzen dira Mendizabal eta Azpeitia. “Ezkontza batean edo jo nuen harekin

lehen aldiz. Gero, 2003an, herri batzuetan kontzertuak ematea proposatu zidan; ez bakarrik organo garrantzitsuetan, herri txikietan ere bai, hango herritarrek beraien instrumentuekin goza zezaten. Herri askotan egon ginen: Zestoan, Getarian, Azkoitian, Alkizan, Tolosan, Durangon... Urte hartan elkarrekin kontzertu mordoa eman genuen; ederki moldatu ginen. Orduetik orkestrekin aritu da, eta diskoak ere atera ditu. Oso pozik nago harremana gorde dugulako”, dio Azpeitiak.

Organoa eta txistua. Bi instrumentu besterik ez Parrokiako nabe handia betetzeko. Edo oker gaude? Izan ere, organoa orkestra txiki bat bezala ikusten dute organo jotzaileek beraiek, erregistroen bidez beste musika instrumentu batzuen doinuak errepika ditzakeelako. “Organoa instrumentuen erregea dela diote. Elizarekin edo liturgiarekin lotuta egon da, baina organoa ez da elizetan bakarrik jotzen. Antzoki eta auditorio handienek ere badituzte organoak”, eman du jakitera zumaiarrak.

Organista bezala da ezaguna, baina instrumentu honekin hasi aurretik pianoa ikasi zuen Mari Karmen Azpeitiak. Oso txikia zela hasi zituen ikasketak. “Lagun bat hasi zelako hasi nintzen neu ere. Garai hartan ez zegoen musika eskolarik Zumaiari, eta emakumeek ez zuten bandan jotzen. Zumaiari bazeuden irakasle partikularrak, baina gehienok kolegioan, mojetan, ikasi genuen. Gero



irrimarra



bai, azterketak Donostian egiten genituen, Musika Kontserbatorioan”.

Ikasketak bukatzen ari zela, San Pedro Parrokiako orduko organista, Angel Araolaza apaiza, berekin harremanetan jarri zen. “Hileta bat edo zuen, familiako norbaitena, eta Zumarragara joan behar zuen. Bazekien musika ikasten nembilela, eta galdetu zidan ea animatuko nintzen organoa jotzera Parrokian, egun berean hileta bat zegoelako Zumaian. Baietz esan nion, organoaren teklatua pianokoa bezalakoa delako, baina pedalak ez nituela joko esan nion. 15-16 bat urte izango nituen orduan”. Urduritasunik ez zuela sentitu dio Azpeitiak. “Pieza erraz horiek jotzeko arazorik ez nuen. Gero, denborarekin, gauzak zailtzen joaten dira, eta obra handi bat jo behar duzunean, adibidez, hor bai, hor nerbioak izaten dituzu”. Eskolako elizkizunetan harmoniuma ere jotzen zuen ordurako, mojek ezin zutenean.

Parrokiako arduradunak gustura geratuko ziren Mari Karmen gazteak egindako lanarekin, elizako organista postua betetzeko deitu zioten eta. “Handik urtebete edo urte erdira, 1974ko Gabonetan, pianoko karrerako azken urtean nengoela, berriro harremanetan jarri ziren nirekin. Don Angelek utzi egin behar zuen, erretiroa hartu behar zuelako, eta berak eman zion nire izena orduko parrokoari, Don Teodoro Bikuñari. Organista postua hartzea proposatu zidan. Beste inor ez bazegoen joko nuela esan nion, baina ez finko bezala. 1975eko urtarrilaren leian hasi nintzen”.

Baten faltan, bi organo jotzaile elkartu ziren parrokiaren hilabete gutxiren epean. “Aste Santua edo izango zen. Abesbatzako zuzendaria Carlos Gorostola zen, eta haren iloba, Mari Tere [Ibarra] pianoa ikasten ari zen. Galdetu zidaten ea axolako zitzaidan Mari Tere ere organoa jotzen hasiko balitz. Denbora batean biok aritu ginen jotzen,

baina handik bost bat urtera, ezkondu nintzenean, titular geratzeko esan nion. Baina norbait behar zuenean, beste inori deitu aurretik, han nengoela esan nion. Hala moldatu gara urte hauetan guztietan, eta hala jarraitu dugu. Bera da organista titularra, eta igandeko elizkizunetan eta hiletetan berak jotzen du. Ezin duenean jotzen dut nik, eta batak edo besteak ezin duenean, hor dugu Iker Gonzalez”. Zumaian bakarrik ez, organista propiorik ez zuten beste herri batzuetan ere jo izan du Azpeitiak: “Getariara, Zestoara eta urte dezentetan Mutrikura joan izan naiz bertako mezatan jotzera”.

Parrokian ezagutu zuen Esteban Elizondo organista ezaguna, denborarekin bere irakasle bihurtuko zena; bere “profesorea”, Azpeitiak deitzen dion bezala. “Urte horretako udan izango zen. Kontzertu bat ematera etorri zen Esteban Elizondo, eta han ikusi gintuen biok, bi neska gazte, eta organoko ikasketak egitea proposatu zigun. Nik ez nekien organoko karrerarik zegoenik ere, eta biok hasi ginen ikasten. Orduan bost urteko karrera zen, eta beste ikasgai osagarriak ere bazituen. Garai hartan ez nuen karrera bukatu; hiru bat urte egin ondoren utzi nuen; ezkondu

Mari Karmen Azpeitia

- **Adina:** 63 urte.
- **Ikasketak:** Piano eta organo karrerak.
- **Lanbidea:** Urte askotan administratzailea Xey enpresan. Lanetik kanpo, organista eta pianista.
- **Zaletasunak:** irakurtzea eta musika.
- **Gogoko izango nuke:** Hizkuntzak ikastea. Bizikletan ibiltzea ere gustatuko litzaidake.



nintzen, familia izan nuen, eta urte batzuetan ez nuen ikasketekin jarraitu. Baina jo, organoa jo, beti jo izan dut”.

Umeak koskortu zitzaizkionean ekin zion berriro ikasketei. “Irakaslearekin hitz egin nuen, eta galdetu nion ea posible izango zen ikasketekin jarraitzea, karrera bukatzeko. Plana berria zen, eta bost urteko karreraren orde zarpikoa zen. Egindako ikasketak konbalidatu zizkidaten, eta amaitu nuen karrera”.

Musika denbora pasa moduan ikusten du Azpeitiak, “hobby bat bezala”. Musika ez da inoiz bere ogibidea izan. “Urte hauetan guztietan administratzailea izan naiz Xey enpresan, orain hiru urte itxi zuten arte”. Hasi, baina, musika irakasle hasi zen. “Piano ikasketak amaitu nituenean, musika emateko irakasle bat behar zuten kolegioan. Organo ikasketak hasi nituen urte horretan bertan piano klaseak eman nituen”. Esperientziak gutxi irau zuen, tamalez. “Karmeliten eskola guztietan ikasgai hori kendu zuten, eta Zumaian ere bai. 17 urte izango nituen, 18 egiteko. Garai hartan ez zegoen musika eskolarik Zumaian, eta ematen ziren klaseak partikularrak ziren. Gurasoek denda bat zuten, elikagaien denda. Musika gustatzen zitzairen, baina ez ziren hain musikazaleak. Pentsatu nuen: klaseak eman behar baditut, eskola orduetatik kanpo izan beharko dute, eta gurasoak etxera etorri eta hura hurrez beteta izatea ez da plana. Lokal bat jartzeko ere edade horrekin ez nuen dirurik. Lana aurkitu nuen, eta denbora honetan musika estra bat izan da”.

Estra horren barruan kontzertuak ere eman ditu Mari Karmen Azpeitiak. Esteban Elizondok bultzatuta hasi zen emanaldiekin. “Irakaslea oso pedagogo ona zen. Lehenbiziko urteetan agian ez, baina karrerako azken urteetan beti egiten genituen kontzertuak gure artean. Harremana ere

hobetzen zen horrela: bata jotzen ari zen bitartean, bestea erregistroekin aritzen zen, eta hurrengoa partituretako orriak pasatzen. Inguruko organoak erakusteko aukera ere eman zigun horrek”.

Europako organoak ezagutzeko bidaiak egiten dituzte urtero. “Espainian izan gara, Italiara joan gara, Frantziara eta Alemaniara ere bai. Aste Santuaren hurrengo astean egiten ditugu bidaiak. Hemen organo onak ditugu, erromantikoak. Donostiako Santa Marian, Loiolan eta Azkoitian daude handienak, eta kanpotik jendea etortzen da hemen diskoak grabatzera. Baina hemendik kanpo ikusi ditugu organo izugarriak. Joaten garenean, normalean, uzten digute jotzen. Baina orain urte batzuk Parisko Notre Damen egon ziren –ni ez nintzen joan–, eta ikusi bai, baina ez zieten utzi jotzen; bertako organistak jo zuen”.

Ez omen dago organo berdinek. “Hala diote, behintzat. Zumaiakoa tamaina ertainekoa da. Teklatu bakarra du eta 15 erregistro. Badaude bost teklatu dituzten organoak, eta 70 erregistrotik gorakoak. Kontzerturen bat eman behar dudanean, organoko erregistroa aukeratu eta han prestatzen dut. Baina, programa bera beste nonbaiten eman nahi baduzu, organo hartara egokitu behar duzu, ez duelako erregistro bera izango”.

Kontzertuak ematen ditu Azpeitiak, baina tamainan. “Pentsatu egiten dut proposamena onartu edo ez. Zumaian jotzea planteatu zidatenean ere hala izan zen. Kontzertu bat prestatzeko ordu asko sartu behar dira. Gipuzkoa mailako organo zikloan parte hartzeko ere deitu naute, baina ez naiz asko animatzen. Hara joan behar duzu, bertan prestatu behar duzu... Adin bat ere badut, eta gauzak lasaiago hartu nahi ditut; ez dut beharrik sentitzen kontzertuak emateko. Hemen ondo nago, koroekin jotzen”. ■■■

BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



Flysch Surf: Iker Zulaika

IRAILAK 10

Aita Mari jatetxea: Bi lagunentzako afaria.

IRAILAK 17

Flysch surf: Bi lagunentzako piragua ikastaroa.

IRAILAK 24

Juanjo Larrañagaren eskaintza.

URRIAK 1

Sastarrain (Zestoa): Bi lagunentzat zaldi ibilaldia.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

AITA MARI JATETXEA: Bi lagunentzako afaria.

PHOTOMUSEUM ZARAUTZ: Bi sarrera.

EKAINBERRI: Bi sarrera.

SASTARRAIN: Zaldi ibilaldiak.

JUANJO LARRAÑAGA: Produktuen zozketa.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko sarrerak.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-emailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45



Irudi engainariak

Hamar zati hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Pertsonaia honen eta irudi nagusiko bere bikiaren artean dauden



aldeak aurkitu behar dituzu. Hamabi dira guztira.

11+1

Bilatuz

Bada gauzatxo bat irudian, inolaz ere agertu beharko ez lukeena, garai hartan asmatu gabea zelako. Zein ote da?

G	T	I		E
		P		T
O	I		P	
		E		
	P			
I	O	E	G	P


Sudokua

Konturatuko zinenez, orriotako jolas guztiek Antzinako Egipton daude girotuta. Osa ezazu sudokua EGIPTO hitzak dituen hizkiekin (E, G, I, P, T eta O). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

 A	 B	 C	 D	 E	 F	 G	 H
 I	 J	 K	 L	 M	 N	 O	
 P	 Q	 R	 S	 T	 U		
 V	 W	 X	 Y	 Z			


Labirintoa

Aurki ezazu momiaren sarkofagora iristeko bidea, gezi beltzetik abiatuta.



Mezua

Alfabetoari erreparatuz, asmatu zer dioen papiroak.



Marraztu

Horra! Momia gaixoa erdizka marraztuta dago. Osa ezazu, mesedez.



Margotu

Handitik txikiira

Ordena itzazu katuok, handienetik (1) txikienera (5)



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA

KABI Patela Etxezarreta, 15
943-11 74 27
TABERNA

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

kalari

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

Maite Elosua
Pelukexi

Auzotzen diranentzat eta ez diranentzat.
Zu zara nire bezeroa.

Erribera kalea 7, 2. atzealdea
638 59 50 38

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 • ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.

Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

LIDEN

eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

NOIA S.L.

**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etegabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

OSA BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxa Mari Korta Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza

altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Larruazala zainduz



ROSA AZKUE

ZUMAJAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Uda garaian murgildurik gaudela eguzkiaren eraginpean jartzeari buruzko gomendio batzuk aipatuko ditut. Azken hamarkadetan ohitura aldaketa esanguratsua izan da alor honetan, eta esan daiteke “eguzkia hartzea” modan dagoen jarduera bilakatu dela. Horrek, nola ez, eragin zuzena du gure osasunean; beraz, beharrezkoa da ohitura osasuntsuak eta babes neurriak sustatzea.

Lehenik eta behin, denok jarraitu beharreko gomendio orokorrak aipatuko ditut:

- Eguardiko **12:00-16:00 artean zuzenean eguzkipean jartzea ekidin** behar da, eguzkiak gehien berotu eta kaltetzen duen momentua delako. Beraz, itzalpean mantendu eguneko ordu beroenetan.
- Eguzkitik babestea da garrantzitsua; horretarako, **arropa, bisera eta betaurreko egokiak** erabili. Kontuan izan, begiei UVA izpiek goizeko lehen eta arratsaldeko azken orduetan eragiten dietela gehien. Betaurrekoak aukeratzeko orduan, lentearen kalitateak(UVA izpien aurkako babesa) eta armazoiak (zenbat eta gehiago estali hobe) dute garrantzi handien. Garestienak ez dira zertan onenak.
- **30 puntutik gorako** krema edo fotoprotekzioa erabiltzea

gomendatzen da. Zer adierazten du zifra horrek? Adibide moduan azalduta: egun eguzkitsu batean protekziorik gabe 20 minutu behar baldin baditugu erretzeko, 30 babes neurria duen krema bat erabiliz 30 bider aldiz denbora gehiago (20 minutu ordez, 600 minutu) kostatuko zaigu erretzen.

- **Kontuz segurtasun falsuekin!** Zenbait ikerketak adierazi dute ustez krema gorputz osoan eta ondo ematen dugula pentsatzen dugula, baina ez garela gure gorputzaren %10 babestera iristen. Horregatik, nahiz eta 50 puntuko krema eman, **aldi bakoitzean birritan ematea eta 2 orduan behin errepikatzea** gomendatzen da babes egokia izateko.
- Askotan krema botilek luze irauten dute; kontuan izan behar da kremak eraginkortasuna gal dezakeela kasu horietan.
- Uretatik irtetean **ondo lehortu** toallarekin, ur tantek lupa efektua eragiten baitute gure azalean. Bestalde, nahiz eta “waterproof” edo urarekiko erresistenteak diren kremak erabili, bainu luzeak (30 minututik gorakoak) hartu eta gero, krema berriz ematea komeni da.
- Esposizioaren lehen 3 egunetan babes neurri zorrotzagoak hartu, azala pixkanaka ohitzen joan dadila. Zoritxarrez erretzen bagara, 10

eguneko atsedena beharko du larruazalak.

- Saio bakoitzaren ondoren, azala ongi hidratatu. Babes neurri egokiak ez hartzeak ondorio larriak ekar ditzake. Adibide garbia da azken urteotan azaleko minbiziak izan duen gorakada. Horrez gain, eguzki izpiek azalaren zahartze goiztiarra ere eragiten dute, horrek dakartzan arazoekin. Gainera, sarri gure azalaren tonuaren arabera kalteak izateko predisposizio handiagoa izan dezakegu. Beraz, azaleko orin edo orbanetan aldaketarik izanez gero, noiz larritu behar dugu?
 - A:** asimetria nabaria duten orinak.
 - B:** ertz irregularrak eta horien aldaketak.
 - C:** kolore aldaketa edota kolore ez homogeneoa izatea.
 - D:** diametroa nabari handitzea, hau da, tamaina handiagotzea.
 - E:** eboluzioa izan duela susmatzea.
 Horietako aldaketaren bat susmatuz gero, eguzki esposizioa eten eta zure medikuarekin kontaktuan jarri ahal bezain laster. Azalaren osasuna norberari dagokion ardura da; beraz, zuhurrak izan eta babes neurri egokiak hartu. Gogoratu azalaren memoria duela eta sortutako kalteek ondorioak izan ditzaketela etorkizunean. ■■■

PUBLIZITATEA

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

SOLOZABAI
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Talaja
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Tapaia
Taberna

Erbers kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA

Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Seltztrak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

Xantia
ALZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantiaztzariak.com

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78

Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upele Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA
AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com

TAPA PAIA!

3. DENBORALDIA
AISIALDIKO ARRAUNA UROLA IBAIAN

Ikusi saio guztiak www.baleike.eus-en

Onuragarriak diren baina haurrei debekatzen dizkiegun jarduerak



MIREIA CENTENO
PSIKOLOGOA

Egia da haurrei mugak jarri eta balio batzuk transmititu behar dizkiegula guraso bezala, baina egia da, baita ere, askotan muga horiek jartzen ditugula inertziaz, benetan beharrezkoak diren ala ez pentsatu gabe. Eta gogoratu mugak beraien beharretan oinarrituta jarri behar ditugula eta saiatu behar dugula gure beharretan ez oinarritzen.

Gaurko honetan askotan mugatzen ditugun baina onuragarriak diren jarduera batzuek arituko gara:

Oinutsik ibili: badaude ikerketa batzuk oinutsik ibiltzearen onurez hitz egiten dutenak, baina, emaitza zientifikoen beharrik gabe, beha dezakegu haurrek beraien inguruko informazio gehiago bereganatzen dutela. Testura ezberdinak, tenperatura ezberdinak..., batzuetan muga batzuk jarri behar ditugu (adibidez ,beirazko ontzi bat puskatu bada); baina, bestela, estimulaziorako aukera egokia izan daiteke.

Eskuekin jatea: gogoratzen dut txikitan arraina eskuekin jatea gustuko nuela, seguruago sentitzen nintzen, hezurak nabaritzen nituelako. Oso onuragarria izan daiteke haurtzaroan zehar. Haurtxoen kasuan, esperimintatzeko aukera ematen dielako, jateko orduan autonomia bultzatzen dugulako, beraiek erabakitzen dutelako zer jan zer ez eta zenbat... Beraz, eskuak ondo garbitu, eta gozatu!

Janariarekin jolastea: argi dago, jatorduetan ezetz, baina bestelakoetan, jolaserako janaria erabiltzeak onura asko izan ditzake. Janaria ukitzea, igurztea eta orokorrean esperimintatzea. Bazkalondoren geratutako soberekin ere, esperimintuak,

**GUK ERABILTZEN
DITUGUN OBJEKTUEKIN
JOLASTEAK ASKO
MOTIBATZEN DITU
HAURRAK**

nahasketak eta errezetak asmatzea ere oso ideia ona izan daiteke. Helduontzat agian nazkagarria; haurarentzat, berriz, aberasgarria.

Edarrietan, lastotxoarekin, burbuilak egitea: gogoratzen dut oso gustuko nuela hau egitea. Gurasoek ez zidaten azken, eta gaur egun, logopedek asko gomendatzen dituzte horrelako ariketak. Gure ahoarekin ariketa ezberdinak egitea ahoskapenaren garapenerako oso onuragarria delako.

Etzeko tresnekin jolasten uztea: lapikoak, sartaiak, edalontziak..., etxean ditugun eta berez jolasteko ez diren objektuak manipulatzeko, ordenan jartzea, sailkatzea... Guk erabiltzen ditugun objektuekin jolasteak asko motibatzen ditu haurrak. Eta motibazio hobekak edozein ikasketa hobetu dezake; beraz, aprobetxatu!

Ikusten duzuen bezala, batzuetan jartzen ditugun mugak, gure aurka bueltatu daitezke; beraz, gogoratu, pentsatu egon daitezkeen onura horietan guztietan. ■



Prehistoriaren bailara. Geoparkearen altxor ezkutua

Aspaldi ikasi genuen gure labarretako haitzetan lurraren historiaren zati bat irakur daitekeela. Geoparkeko labarretan denbora milioi urteetan neurtzen da, gizakientzat handiegia den eskala batean, baina aldi berean, etorkizuneko erroka klimatikoari zein ekologikoari aurre egiteko informazio baliagarria atera daiteke.

Testua: **Asier Hilario.**

Prehistoriaren bailara. Sasiola inguruan jarri berri den behatokitik Deba bailarako kobazulo gehienak kokatu daitezke.

Duela bi urte atal honetan ikusi genuen, baita ere, gure mendiak, bailarak eta paisaiak azken bi milioi urteetan sortu direla nagusiki. Gure mendiak kareharrizko mendiak direla ikasi genuen eta kareharri hauek euri urarekin disolbatu egiten direla eta kobazulo ugari sortzen dituztela. Geoparkearen barruan ehunka haitzulo daude kostaldetik gertu eta hori ondo baliatu zuten gure arbasoek. Deba bailaran Pirinio eta kantabriar mendietako historiaurre aztarnategi kontzentrazio altuena daukagu. Gune txiki batean oso aztarnategi oparoak daude, besteak beste, Ekain, Urriaga, Praileaitz, Ermitia, Astigarraga, Zerratu, Aizkoltxo, Kiputz, Langatxo edo Iruroin. Guztira 60 aztarnategi baino gehiago.



Hau da gure geoparkearen altxor ezkutua: Prehistoriaren bailara, gure historia bera ulertzeko aukera.

Zergatik Geoparkean?


Kontzentrazio altu horren arrazoi nagusia kobazuloen kokapena da. Haitzulo hauek kostaldetik gertu zeuden eta klima hotzagoan oso baliagarriak izan ziren gure arbasoentzat.

Gako eta balio nagusiak

- **Azken 200.000 urteetako historia.** Aztarnategi kopuru altua izateaz gain, aurkitutako tresnek adierazten digute kronologia ere

Ermitia kobazuloko berregitea.

Deba bailarako kobazuloen kronologia eta klimaren bilakaera.





Aurkitutako tresnetan eboluzio argia ikusi daiteke kultura desberdinetan zehar.

Prailehaitz kobazulo zintzilikailuak.

oso zabala dela. Esan daiteke gure arbasoak azken 200.000 urteetan modu jarraian okupatu izan dutela gure lurraldea. Behe, Erdi eta Goi Paleolitoa, Epipaleolitoa, Mesolitoa, Neolitoa, Brontze Aroa, Burdin Aroa eta erromatar garaiko aztarnak dauzkagu. Hor dago gure historiaren puzzlea.

- **Gure arbasoen bizimodua.** Erregistroa zabalagoa bada ere, aztarnategi gehienak eta oparoenak duela 15.000–10.000 urte bitartekoak dira. Garai hartan gure arbasoek inguruko kobazulo asko erabili zituzten, eta litekeena da kobazulo bakoitzak funtzionalitate desberdina izatea eta beraien artean elkar erlazionatzea. Ermitia, adibidez, basahuntzak ehizatzen kobazuloa izan zitekeen, Langatxo arrantzarako aterpe txiki bat, Ekain bizitzeko kobazulo zabala eta Praileaitz ekimen sakratuen haitzuloa. Aztarnategi kopuru eta aniztasun horrek garai hartako gure arbasoen bizimodua ondo ulertzeko aukera ematen digu: nor ziren, nola mugitzen ziren, zer jaten zuten, nola moldatzen zituzten tresnak, nolakoak ziren beraien harremanak, nondik nora mugitzen ziren, zer pentsatzen zuten...
- **Artea:** Ekain eta askoz gehiago. Goi Paleolitoko gizaki haiek mundu desberdin batean bizi ziren eta beraien sinesmenak arte moduan irudikatu zituzten. Batzuetan doitasun handiarekin egiten zituzten marrazkiak beraien tresnak apaintzeko. Hori da, adibidez, Ermitiako arpoiaren kasua. Praileaitz kobazuloan, adibidez, zehaztasun handiz egindako zintzilikario beltz eta enigmatikoak aurkitu dira. Nor bizi zen kobazulo txiki eta magiko horretan? Zertarako zintzilikarioak? Baina zalantzarik gabe txundituta utziko gaituen adierazpen artistikoa Ekain kobazuloko horma artea da, 2008. urtean Unescok munduko ondarea izendatu zuen kobazuloa. Zaldien haitzuloa. Inon nork margotu izan dituen zaldi harrigarri eta txundigarrienak ditugu gure geoparkean. Baina ez hori bakarrik, Ekaingo santutegiaren paretetan arrainak, ahuntzak, oreinak, bisonteak eta hartzak ere badaude. Zergatik margotzen zuten? Nork margotzen zuen? Zergatik zaldiak bereziki? Horma arteak gure pentsamenduaren jatorriaren ispiluaren aurrean jartzen gaitu.
- **Neandertal–Homo Sapiens Sapiens.** Gure arbaso zuzenak *Homo Sapiens Sapiens* dira. Beraiek izan ziren duela 14.000 urte Ekain margotu zutenak, baina Praileaitz, Zerratu edo Astigarragako kobazuloetan aurkitu diren aztarnak askoz zaharragoak dira (200.000–40.000 urte). Tresna horiek neandertalek egin zituzten. Bai, ondo irakurri duzu. Duela 40.000 urte Europatik desagertu zen giza espeziea ere bizi izan zen gure inguruan.
- **Klima.** Denbora tarte luze honetan klima ez da gaur ezagutzen dugun bezalako izan. Duela 120.000 urte inguru neandertalek klima epel batean bizi izan ziren, baina denbora gutxian klima hoztu egin zen. Mundua azken glaziazioan sartu zen eta Homo Sapiensak bizi baldintza gogor hauetara moldatu behar izan zuen. Negua benetan zen gorria Goi Paleolitoan. Duela 80.000–10.000 urte Ipar poloko izotza Londres edo Berlin ingurura iristen zen, Aralarren glaziar bat zegoen eta Andutz edo Izarraitz elurrez estalita egongo ziren urteko garai luzeetan. Gure arbasoek itsasoko baliabideak ustiatzen zituzten, baina horretarako gaur egun baino



10 bat kilometro gehiago ibili behar zuten. Itsas maila gaur egun baino 100 metro inguru baxuago zegoen.

• **Panterak, hartzak eta mamutak geoparkean.**

Gure arbasoen bizimodua ehizari lotuta zegoen. Ez da erraza sinesten, baina kobazuloetan azaldu diren fosilei begiratuz klimaren arabera paraje haueetan hartzak, panterak, mamutak, elefanteak, bisonteak, oreinak, elur oreinak eta basahuntzak nonahi ikusi zitezkeela ondoriozta daiteke. Horiek ziren gure arbasoen kideak, ehiza eta arriskuak. Faunari dagokionez Kiputzeko kobazuloa azpimarratu behar da.

Arno mendiaren magaletan dagoen sima (zulo) txiki hau duela 20.000 urte inguru tranpa natural bat izan zen inguruko animalientzat. Aurkitutako 18.000 hezur pusketetatik abiatuta, Kiputz IX leizean aurkitu dira Iberiar penintsula osoko elur orein, bisonte eta orein multzo oparoenak. Guztietatik nabarmendu behar da estepako bisonte baten garezur osoaren aurkikuntza ikusgarria. Kiputz leiho ederra da azken glaziazioaren fauna ulertzeko.



Kiputzeko bisontearen erreplika.

Geoparkea eta Prehistoriaren bailara

Azken 200.000 urteetan gure lurraldean bizi izan diren animalia zein gizakiek aztarna ugari utzi dituzte. Erronka ederra eta interesgarria daukagu aurrean. Gure historiaren puzzlea osatzeko aukera daukagu. Horretarako geologian urte askotan egin izan dugun moduan, ikerketa antolatu, kontserbazioa bultzatu eta dibulgazioa landuko dugu gure historiaren altxorrek ezagutzera emateko. Aukera ezin hobea daukagu gure arbasoan mundua ulertzeko. Hain gertu eta hain hurrin. ■■■

ERRONKA EDERRA ETA INTERESGARRIA DAUKAGU AURREAN GURE HISTORIAREN PUZZLEA OSATZEKO

Hau da edari zoragarria...



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

Batzuek gogoan izango dituzue Xarrenekoa, Cantábrico, Astonekoa, Kaiola, Anduja... Denboran atzerago joanda, ordea, beste zer taberna zeuden Zumaian? Gaur tabernatik tabernara joango gara, ia-ia txikiteoan, eta zenbait pasadizo kontatu bitartean, Maria Jesus, bihotzekoa, bete hamaseigarrena.

Tabernak edariak eta janariak kontsumitzeko lekuak dira, baina gurean batez ere elkartzeko guneak dira, sozializatzeak. Betidanik egon dira, eta horien arrastoak aspalditik aurki daitezke dokumentuetan. Horrela, badakigu 1800ean bi ostatu eta bost taberna zeudela Zumaian, eta 1869an hiru kafe (sei mahairekin eta 62 jarlekurekin) eta lau taberna (lau mahairekin eta 70 jarlekurekin). Baina paperotan ez dago jasota zer taberna edo kafe ziren, nola izena zuten, eta gehienetan azaltzen dira gertakari bereziren bat zela medio, askotan borrokak edo istiluak, eta horien ondoriozko epaiketei esker dakigu hor zeudela.

Horrela, 1801eko santelmoetan, Ascensio Gurrutxaga oikiarra eta lagun batzuk Zumaiara etorri ziren, txanalean ibaian behera,

arratsaldea pasatzera, eta Maria Josefa Mendizabal eta Francisca Uranga ama-alabek zeramaten herriko tabernan sartu ziren; tabernaren goiko solairura igota, edaten hasi orduko abisatu zien etxeoandreak zumaiar batzuk “okasioa” edo liskarra prestatzen ari zirela, lehendik konpondu gabe zeuzkaten kontu batzuegatik (Zarautzen harrapatutako azken balea zela eta), eta aholkatu zien lehenbailehen alde egiteko; alferrik, ordea, egurtu egin zuten-eta Ascensio¹. Kale Nagusian, bada etxe bat “Tabernakoa” izenekoa, 10. zenbakia daukana, eta litekeena da han gertatzea.

Urte batzuk geroago, 1863an, Andres Balentziagaren




“Tabernakoa” etxea, Kale Nagusian.

IMANOL AZKUE

tabernan, Joaquin Olaizola zurrutean eta gaizki esaka ari omen zen herriko bake epaileaz, eta hara non sartu zen tabernan bake epailea bera, Pedro Txapartegi; baten batek esan omen zion Joaquin ez zela ausartuko lehen esandako guztiak epailearen aurrean esaten; Joaquin ausartu, eta kristorenak esan omen zizkion, baita epaileak salatu ere².

1879an, istilu handia izan zen Sebastian Aristondoren tabernan. Epaietan azaltzen denez, Benito Eizagirrek atea ixteko trangarekin jo zuen Pedro Txapartegi, soldaduskako kupoa ez ordaintzeagatik. Bada, gainera, bitxikeria bat: tabernaren nagusiak, Aristondok, ez zekien gaztelaniaz, eta ez zituen ulertu Eizagirrek eta Txapartegik elkarri esandako batzuk, erdaraz egin zutelako³.

1887an, mikeleteen sarjentuaren emaztea sagardo bila jaitsi zen gauean Erribera kaleko sagardotegira (seguru asko, gaur egun Anade elkartearen dagoen lekura); han zeudenetako batzuek komeni ez zen zerbait esan eta emakumeak bati belarrondokoa eman zion; orduan istiluak izan ziren, are handiagoak senarra (sarjentua) sagardotegira sartu zenean, emaztea iraindu zutenak atxilotzera⁴.



Narkis Balentziaga arroarraren "Sagardotegia" koadroak Anade elkartera akordaraziko digu. ISMAEL MANTEROLAK UTZIA

Epaiaketak alde batera utzita, esan daiteke tabernak ugaritzen hasi zirela gurean batez ere XIX. mendearen amaieran; Udala haiek estuago hartzen hasi zen, baimenak eskatzen eta baldintzak zorrotzen eta gogortzen; hainbeste taberna zeuden (1885ean 16 laguni eman zieten baimena), 1892an Udalak erabaki zuen aldi batean irekiera-baimen gehiago ez ematea. Gainera, tabernak espazio publikoa hartzen ere hasi ziren: 1899an, Josefa Teresa Etxabek baimena eskatu zuen Moilako espaloietan mahaia eta aulkiak jartzeko, eta hura kontu berria zenez,



Etxabe Kuarto tabernan, lagun kuadrilla. JAVIER CARBALLOK UTZIA



“Gau Txori” sagardotegia, Jadarren. Auzoaren izena aldatu ere egin zuen garai batean.

GONTXAL TORREK UTZIA

Udalak erabaki zuen galdetzea Donostian nola jokatzeko zuten. Udala behin eta berriz ahalegindu zen tabernen jarduera arautzen, haiek betetzen ez ziren seinale: kanpoaldean nolako errotuluak jarri, edariak zenbatean saldu, espazio publikoaren okupazioa, ixteko ordutegia... Azken horri dagokionez, hauxe 1878ko erabakia: neguan, 21:00etan, eta udaran, 22:00etan; eskerrak gero zabaldu egin zuten, ezta? Bitxikeria gisa, urte askotan Udalak tabernak itxiarazi egiten zituen jaiegunetan elizkizunak zeuden bitartean, eta pilotan jokatzeko ere debekatu egiten zuen meza amaitu arte.

Tabernen ondoan edo barruan, tabernariak bestelakoak jartzen zituzten bezeroen entretenigarri eta gozagarri; horrela, 1907an, Miguel Aginagaldek baimena eskatu zuen “juego de la rana” eta toka jartzeko tabernaren kanpoaldean, Erribera 11n,

baina Udalak ukatu egin zion: “por considerar no ser culto ni conveniente el autorizar esta clase de espectáculos en las vías públicas y terrenos del común”⁵; bola jokoak jarri zituzten beste tabernari batzuek Beheko plazan eta San Telmo kalean; gainera, zenbaitek musika edo organilloa jarri zuten eta prest zeuden zegoekia ordaintzeko; adibidez, Hotel Centraleko arrutitarrek 500 pezeta ordaintzen zituzten urteko, 1921ean. Baina, gehienetan, erraztasunak baino gehiago trabak izaten ziren horrelakoak jartzeko, batik bat agintarien moral estuarengatik, eta garai batean, tradizionalistak ez ezik, nazionalistak ere musika berritzaile haren aurka zeuden; adibidez, 1917an, Trueba zinegotzi nazionalistak salaketa egin zuen udaletxean, Miguel Ibarren tabernan organilloa zegoelako eta dantza egiten zutelako;

1945ean, berriz, parrokoak, urtero bezala hondartzetako “dezentzia” eta moralitatea tentuz zaintzeko eskatzearekin batera, Udalari eskatu zion “se vigile las actuaciones de los Artistas que actúan en público o en los locales de los Bares y Tabernas para corregir las extralimitaciones que pudieran producirse”⁶.

1942an, Jose Uribe eta Luis Unanuek baimena eskatu zitoten Udalari Etxabe Cuarto tabernan kinielak egiteko, eta Udalak erantzun zien hori ez zela bere eskumenekoa. Azken adibide bat: 1947an, Astoneko tabernaren nagusiari baimena eman zion Udalak gramola bozgorailudun bat jartzeko.

Auzoetan ere baziren tabernak (Oikian, adibidez, Txortengoa, Beheko Errementariko Txabola...), eta oso garrantzitsuak ziren auzotarrak elkartzeko. Hain zuzen ere, 1909an Diputazioak itxiarazi egin zuen Artadiko taberna, eta han bizi zirenak kezu ziren erabakiarekin, ez zeukatelako non ospatu bataio, ezkontza, hileta eta abar, eta gazteek Zumaiara jaitsi behar zutelako eta berandu iristen zirelako etxera bide arriskutsuetan barrena.

Taberna eta tabernari batzuen berri izateko, oso arrasto lagungarria da hamaiketakoan edo otorduen fakturak



Zumaiako liberalak Faustoren tabernaren aurrealdean. ZUMAIAKO UDALA

aztertzea; adibidez, honelakoak: “Fueron leídas y aprobadas las facturas siguientes: de casa Erreketa de Pts 29,85 y Pts 81,90 por suministro de amaiketako y comidas a los componentes de la Junta del censo electoral”⁷⁷; nolako agintariak eta gastuak, faktura gehiago edo gutxiago daude, eta bereziki aipagarria Victoriano Arrate alkateak 1931n hartutako erabakia: “propone que se supriman en absoluto, desde este momento, las refacciones o ‘amaiketako’ que han venido haciendo las corporaciones anteriores”⁷⁸.

Hondartzetako kantinak ere ez dira gaur goizekoak. 1923an, Luis Martínez Kleiserrek (Hotel Amaya eraikiarazi zuenak) eskaera egin zuen Itzurunen kantina jartzeko, mahaiekin eta aulkiekin, baita Udalak onartu

ere: hartzen zuen metro koadro bakoitzeko 20 zentimo eskatu zizkion; gero, Antonio Goikoetxeak eskuratu zuen kantina, eta hark utzitakoan, 1936an, Rafaela Aizpuruak.

Tabernariak eta dendariak elkarren osagarriak dira, baina baita lehiakide ere, eta horren adibide batzuk badauzkagu. 1944an, tabernari batzuek idatzi bat sartu zuten udaletxean: “que viniendo sufriendo constantemente una competencia con varios industriales [dendariak] vecinos de esta villa los cuales se dedican a la venta de vino a cualquier hora del día haciendo la venta como si se tratase de un Bar, colocándose por tal motivo en situación más ventajosa y perjudicando enormemente a los firmantes”⁷⁹.

Kontrakoa ere gertatu zen, ordea: Juana Aiaitui Gastesik baimena eskatu zuen 1945ean, “para vender vino al ‘chiquiteo’, durante ocho días a partir del día ocho del corriente mes [santelmoetan] en su establecimiento de ultramarinos sito en esta villa y su calle del Puerto nº 8 bajo”¹⁰. Horren ondoan (Puerto kaleko 6 zenbakian) eskatu zuen taberna zabaltzeko baimena Alberto Esnal Toledok, 1945ean, eta handik gertu “Bar-ambigú” bat jartzeko baimena luistarrek, 1946an, Zentro Parrokialean.

Azkenik, bereziki azpimarratzekoak ziren elkargune politiko eta sindikalak, taberna bezala ere funtzionatzen zutenak. Horietatik nabarmenena Fausto Zarautzen (eta gero Eloy

semearen) taberna, gaur egun Pulpo elkarte dagoen horretan, hurrenez hurren hor elkartu zirelako liberalak, errepublikazaleak, sozialistak... Nazionalisten lehen batzokia, berriz, gaur egun Inpernupe dagoen lekuan inauguratu zuten, 1909an; hauxe baimen eskaera: “en súplica de autorización para expendir vinos y aguardientes por copas

en la casa N° 6 de la calle del Puerto y 2 de Mari o sea en el Batzoqui ‘Zumaitarra’”¹¹.

Honaino iritsirik, baxoerdi hartzearekin batera, nola ahaztu Txikito Artadiren xarma hura, beste garai bateko dekorazioa, argitasuna, ambientea...; han ezagutu nuen periodiko papera komunean. Orduan bai...

¹ZUA, 223.08, 1801-04-14.

²ZUA, 225.10, 1863-10-30.

³ZUA, 225.11, 1879-12-11.

⁴ZUA, 226.07, 1887-05-03.

⁵ZUA, 2832 (421), 1907-05-02.

⁶ZUA 2855 (105V), 1945-07-20.

⁷ZUA 2849 (41V), 1931-06-26.

⁸ZUA 2849 (10V), 1931-04-23.

⁹ZUA 2854(7V), 1944-05-17.

¹⁰ZUA 2855 (72), 1945-04-06.

¹¹ZUA 2833 (190), 1909-02-25.

Kantuan

Kantuan hasi dugu artikulua, eta kantuan amaituko dugu. Hona hemen Zumaiako tabernak mintzagai dituzten bertso bat eta abesti bat:

Patxito eta bere lagunak
beste kuadrilla bikaña!
Txotxak apaintzen ta
eonian
iaiuak bai, alajaña!
Atoajian izaten zuten
noizean beingo ordaña,
Fausto ta Justo'nean
lagia
ardotan, baña ez nai aña.

“ZUMAIKO KONTU ZARRAK”. Manuel Olaizola Sarria



Errotakua tabernaren kanpoaldean, XX. mendearen hasieran. ZUMAIKO UDALA

Las tabernas de Zumai
ya sabemos cuáles son:
Alejo, Uxarrua y Txapas,
Fausto, Juana y Simón.
En algunas de ellas
he solido ver
a unos cuantos parroquianos
que se baten el parné.

Errotakua y Xarra en el muelle,
en San Telmo la Valentina,
en la Ribera en el diez
tenemos la Serafina.
Txino en la Carnicería
dentro de la población
y la viuda de Patricio
en la Plaza Mayor.

Zumaiari buruzko habanera,
1920 baino lehenagokoa. Egile
ezezaguna. ■■■

Zure lanarekin **10. edizioa**

HAZILAN

Murgilda zaitez lan mundura

Prestakuntza doan eta praktikak eskualdeko enpreetan

izen-ematea zabalik
irailaren 23ra arte

Argibide gehiago: 943-89 08 08 • lanpoltsa@urolakosta.eus • www.urolakosta.eus



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA



EUROPAR BATASUNA
Europea Gizarte Politikak duen
antolatzean inbertitzen du
UNION EUROPEA
El Fondo Social Europeo
inberti en la futuro

PMFV ES 2014-2020



GURE IZAERA
KULTURA
HIZKUNTZA LEHENA.

GEUREA LEHENA.



Bideobirusa



MARIXI SESMA AIZPURUA

Bat-batean, zezenak harrapatu gaitu eta ikusten ari gara benetan garrantzia izan behar duten eta funtsezkoak diren gaietan ez gaudela prestatuta, beste behin. Eta ez COVID-19a azaldu delako; izan ere, honek agerian jarri du soilik, eta zalantzan ipini, ea benetan gizarte “garatua” garen.

XXI. mendeko bigarren hamarkadan, inork espero ez zuenean, birus batek mundua gelditu zuen. Eta “hurrengo egunean”? Bada, diotenez, pixkanaka “normaltasunera buelta”. Baina “buelta” ziurgabetasun galantarekin, eta “normaltasun” hori birdefinitu egin behar. Beraz, edo gauzak aldatzeko aukera aprobetxatzen dugu, edo ez dugu barkamenik etorkizunean izango diren begientzat.

Hala, kulturaren mundua ere geratu zen; zuzeneko musikak isiltzeaz gain, antzerkiko oihala ere erori egin zen, zineak itxi eta dantzariak dantzatzeari utzi zioten. Ezagutu duguna kostako zaigu berriro ikusten; horrek ez du esan nahi, ordea, kultur egitasmoak eta jarduerak ezin direnik egin eta martxan jarri.

Ohiturak aldatzeko edo egiten zirenak berrikusteko garaia dugu aurrerantzean.

Eta bitartean COVID-19ak berarekin ekarri duen bideobirusak sareak (sozialak) gainezka jarri ditu. Birus hau bai sartu dela isil-isilik etxe guztietan; bideo batzuk xebreak, baina, orokorrean, ekarpen gutxi. Gainera, eta triste da, badirudi bertan ez dagoena ez dela existitzen, edo okerrago, ez duela lanik egiten.

Kultura gizartea birbideratzeko beharrezkoa da; artisau baten moduan, denbora eta energia asko behar dira proiektu bikainak egin ahal izateko... “konfinamenduko” ordu asko pasa behar izaten dira bestela ere, eta ez COVID-19 honen garaian bakarrik.

Milaka haur eta gazte egon dira etxeetan. Norbaitek

MARTXA HONETAN ALGORITMOEK LASTER ORDEZKATUKO DITUZTE KONPOSATZAILEAK ETA MUSIKARIAK

pentsatu al du horiengan eta irriti-telebistako programazioa egokitzea, adibidez? Ez “eskolako lanari gehitzeko”, baizik eta dokumentalak, pelikulak, kontzertuak... KULTURA, HEZKUNTZA, ZIENTZIA duten edukiak. Esaterako, hedabideetako kirol atalek berdin jarraitu zuten, nahiz eta guztia geratuta zegoen (gauza guztiak bezalaxe); ea liga noiz bueltatuko zen, torneoak atzeratuko zirela, kirolariak zertan eta nola pasatzen zuten denboraren berri emanaz (batez ere, azken urteetako erlijio berria bihurtu den futbolarekin zerikusia zutenak). Ez zitzaion (eta zaio) inori bururatzen agian albisteetan fundamentuzko kultura-atal bat sortu behar denik “irakurri hau, entzun hau” esanaz.

Martxa honetan algoritmoek laster ordezkatuko dituzte konposatzaileak eta musikariak, eta nahikoa izango dute Britney Spears gauditzea Tchaikovskyrekin hasi aurretik, Yuval Noah Hararik dioen bezala. Bideobirusa dugu adibide. ■■■

AGENDA

ERAKUSKETAK

IRAILAK 5-URRIAK 4

Zuloaga eta Zumaia.

URRIAK 9-AZAROAK 1

Harriak.

UDAZKENA

IRAILAK 10 OSTEGUNA

Estreinaldia: Ekain Albiteren pelikula.

Aita Mari aretoan, 20:00etan.



IRAILAK 11 OSTIRALA

Dantza: Errimak Bi Oinetan. Haatik.
Aita Mari aretoan, 20:00etan.

Zirkoa: Circo Chosco.
Torreberrin, 17:30ean.



IRAILAK 24 OSTEGUNA

Dokumentala: *Ez, eskerrik asko.*
Gladys del Estal (Natur taldea antolatzailea).
Aita Mari aretoan, 19:00etan.

IRAILAK 25 OSTIRALA

Dokumentala: Edurne Pasaban.
(Emakumeon* etxea antolatzailea).
Aita Mari aretoan, 19:00etan.

IRAILAK 26 LARUNBATA

Organo kontzertua: FLYSCH zikloa.
Parrokian, 20:30ean.

URRIAK 4 IGANDEA

Antzerkia: *Gorakada Pinocchio.*
Aita Mari aretoan, 12:00etan.

URRIAK 9 OSTIRALA

Bertso saioa. (Bertso eskola antolatzailea).
Zumaienan, 20:00etan.



URRIAK 17 LARUNBATA

Antzerkia: *Gu primer!* Xentimorik gabe.
Aita Mari aretoan (saio bakarria), 20:00etan.

URRIAK 25 IGANDEA

Antzerkia: *Hai, ametsen arrantzalea.*
Giramagic.
Aita Mari aretoan, 12:00etan.



Oroitzapenak



JUAN LUIS ROMATET

Ume bat izan, zuhaitz bat landatu eta liburu bat idatzi. Hiru horiek bete gabe ez omen zara bizitzan inor. Umerik ez dut; zuhaitzen bat landatzen lagundu dut, Zuhaitz Egun batean; eta hitz bat bestearen atzetik jartzen urte dezente badaramat ere, ez dut libururik idatzi. Beraz, ba ote naiz zerbait bizitzan?

Lagun edo ezagunek esan izan didate oroitzapenen liburu bat atera beharko nukeela behin kazetaritza lanak uzten ditudanean, mendeku moduan edo. Ez zen gaizki egongo... taxuzko zerbaitez akordatuko banintz. Hori da eta kontua: burua oroitzapenez beteta izanda ere, benetan inporta duen ia ezertaz ez naizela akordatzen.

Gogoan dut zazpi bat urte nituenean argizari pote bat bota nuela balkoitik, eta amak kristoren bronka bota zidala. Gogoan dut ikastolatik Iruñera (edo Gasteiz izango zen?) joan ginela, eta eraikin baten sarreran, ate ondoan, maleta bat zegoela; harekin baboarena egiten hasi nintzela (nola ez), eta irteterakoan polizia mordoa zegoela maleta haren bueltan, lehergailua edo izango zelakoan. Gogoan dut aitarekin hartu nuela lehen zerbeza, gaseosarekin, etxeko sukaldean; arraskara hurreratu nintzela, botaka egingo banuen ere, eta aitak esan zidala tontoa ez izateko. Gogoan dut lehen singlea OMD taldearen *Enola Gay* izan zela; lehen diskoa Madnesen *One step beyond* izan zela, lehen disko konpaktua Van Morrisonen *Astral weeks*, lehen VHSa *The Blues Brothers* eta lehen DVDa *Moulin Rouge*.

Gogoan dut Gipuzkoako egunkari salduenean lanean hasi eta berehala Donostiara joan behar izan nuela, bronka bat jasotzera, idatzitako lehen ez-dakit-zenbat orri euskara hutsean izan zirelako. Gogoan dut Joxe Mari Korta hil zuten egunaren biharamunean piraguismoari buruzko artikulu bat joan zela Zumaiako orrian, eta lanbide honetan halako lotsarik gutxitan pasa dudala. Gogoan dut Odieta frontoi zaharreko harmailan eserita nengoan batean garai hartan Zumaian gobernuan zegoen alderdiko bi zinegotzi alboan eseri zitzaizkidala –bat ezkerrean, bestea eskuinean–, eta halako “solasaldi-bronka” bat eman zidatela. Gogoan dut, urte batzuk geroago, Odieta frontoian nengoela, zutik, harmailarik eta sabairik ez zegoelako, Zumaian gobernuan zegoen alderdiko zinegotzi bat –beste alderdi batekoa– ondoan jarri eta “solasaldi-bronka” bat eman zidala. Gogoan dut Gaztela eta Leongo herri batean, gauerdian, Kasiopea konstelazioaz hitz egiten aritu nintzela Zumaiako alkate ohi batekin. Eta gogoan dut bere arrebeke nola esnatzen zuten anaia-etxeko gizona Saharako errefuxiatuen kanpalekuko etxe batean.

Halako oroitzapenak ditut. Ikusten den bezala, interes gutxikoak. Hala ere, norbaitek eskaintza (ekonomiko) bat egiteko gogoan badu, badaki non nagoen. ■■■

**BURUA OROITZAPENEZ
BETETA IZANDA ERE,
BENETAN INPORTA
DUEN IA EZERTAZ EZ
NAIZ AKORDATZEN**



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?

Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net

AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta ikas
dezazun nahi du.



Janire Urrestarazu Aizpurua, AEK-ko irakaslea.



EUSKARA-IKASTAROAK

Urola Kostako AEK

Matrikula zabalik, irailaren 4tik 22ra

Zarautz · 943 130 175 · zarautz@aek.eus

Azkoitia · 943 151 089 · azkoitia@aek.eus

Zumaia · 943 860 248 · zumaia@aek.eus

Orio · 670 420 025 · orio@aek.eus

Zestoa · 670 420 048 · zestoa@aek.eus